

II. ERANSKINA

1.- GARAPEN-KOOPERAZIOAREN PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK ESKATZEA

1.- GARAPEN-KOOPERAZIOAREN EKINTZAK EGITEKO ESKAERA

Erakunde eskatzailea:

Proiektuaren izenburua:

Herrialdea:

Data:

Jarduera-sektorea:

Eskatutako zenbatekoa:

INFORMAZIO OROKORRA
PROIEKTUA AURKEZTEKO DATUAK

1.- Proiektua:

Proiektuaren izenburua (hamar hitzetan gehienez)
Herrialdea/Area geografikoa:

2.- Erakunde eskatzailea:

(Erantsi dokumentazioa/informazioa I. atalean).

Izen ofiziala:

IFZ:

Eratze-data:

Harremanetarako telefonoa:

Telefonoa:

Faxa:

Posta elektronikoa:

Helbidea/sozietatearen egoitza:

Pertsona ahalduna:

Kargua:

Sinatzen du erantzukizuna onartuz eskaera honetan:

Erakunde eskatzaileak egindako garapen-ekintzen zerrenda
(urtea, proiektuaren izenburua, finantzazio-erakundea, diruz
lagundutakoa guztira):

Jomugako herrialdean kooperatzen hasi zen urtea:

Bazkideen kopurua:

Profesionalen kopurua (liberatuak):

Boluntarioen kopurua:

Azken bi urteetan egindako sentsibilizazio-ekintzen zerrenda
eta tokia:

3.- Tokiko erakundea herrialde hartzailean:

(Erantsi dokumentazioa/informazioa II. atalean).

Izen ofiziala:

Eratze-data:

Helbidea/sozietatearen egoitza:

Telefonoa:

Faxa:

Posta elektronikoa:

Proiektuaren pertsona arduraduna:

Kargua:

Izaera juridikoa:

Pertsona ahalduna:

Proiektuaren sektorean egindako proiektuak eta jarduerak:

Beste sektoreetan egindako proiektuak eta jarduerak:

4.- Erakunde eskatzailearen eta tokiko bazkidearen arteko harremana (partzuergoaren kasuan, aipatu zein erakundek osatzen



Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

duten)

Harremanari ekin zioten urtea:
Batera egindako proiektuen zerrenda (proiektuaren izenburua,
urtea eta zenbatekoa):

IRAUPENA

Hasteko aurrez ikusitako data:
Amaitzeko aurrez ikusitako data:
Gauzatzeko denbora guztia (hilabeteetan):

FINANTZAZIOA GUZTIRA

Kostu guztia:		
Leioako Udalari eskatutako ekarpena:		
Tokiko moneta euro bihurtzeko erabilitako aldageta-mota:		
Eskatutako edo emandako bestelako ekarpenak (zehaztu):		
Euskal erakundea:	Emandakoa	Eskatutakoa
Tokiko ekarpenak:		
Bestelako ekarpenak:		

1.- PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURTUA (deskribatu 5-10 lerrotan proiektuaren edukiaren laburpena datu aipagarrienekin).

2.- KOKAPEN ZEHATZA (erantsi III. atalean eskualdearen mapa proiektuaren kokapenarekin).

3.- TESTUINGURUA, AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA.

3.1.- Testuingurua (esparru geografikoa, ezaugarri sozioekonomikoak, biztanleak, genero-harremanen egoera, etab., zehatzago dokumentatzeko proiektua kokatzen den esparrua, nagusiki, proiektuaren xedearekin zerikusia duten alderdietan. Erabili IV. atala informazioa zabaltzeko).

3.2.- Aurrekariak (azaldu ekimenaren jatorria, abiapuntuko analisisia, gizezkoen eta emakumezkoen egoera eta posizioari dagokionez desberdintasunen diagnostikoa erantsiz; euskal erakundearen, tokiko erakundearen, tokiko organismoen, nazioarteko erakundeen, eta abarren arteko harremana; zerrendatu tokiko erakundeak aldeztu aurretik egindako proiektuak, horien zenbatekoak zehaztuz; azaldu, hala balego, GGKE eskatzailearen edo tokiko erakundearen plan estrategikoa epe ertainera eta luzera; deskribatu antzeko ekimenak edo proiektuak zonan, gauzatzeko aurrez ikusitako koordinazioa, nola identifikatu den, formulazioa, eta, hala baleude, aurrekariak hobeto karakterizatzen lagunduko duten aldeztu aurretiko ikerketak. Informazio osagarria IV. atalean erantsiko da).

3.3.- Justifikazioa (modu laburtuan, azaldu proiektuaren proposamena eragiten duten arrazoiak, populazio subjektuarentzat egokitasuna, ebatzi nahi diren arazoetan aurreratuz, markatutako helburuak, jarraitu nahi den estrategia eta modu koherentean arazoitu proiektua, bertan aurrez ikusitako esku-hartzea justifikatuz. Planteatu modu laburrean zeharkako lerro bakoitzarekiko jarraituko diren estrategiak).

4.- ESKU-HARTZEAREN LOGIKA Hurrengo azpiatalean azaldu koherentziaz proiektua lortzea hurrengo sekuentzia justifikatuz: giza baliabideen, materialen edo teknikoaren erabilera; aurrez ikusitako jarduerak egitea; emaitzen lorpenak; proiektuaren helburu berezia lortzea; helburu orokorra lortzearekiko ekarpena.

V. atalean Proiektuaren Plangintza Matrizea -PPM- erantsiko da eta bertan modu laburtuan kontzeptu horiek deskribatuko dira, adierazle, egiaztapen-iturri eta hipotesi edo kanpoko faktoreekin batera.

4.1.- Helburu orokorra (Betetzeko proiektuak lortu nahi duen helburu zabalaren deskribapen orokorra).

4.2.- Proiektuaren helburu zehatza (deskribatu populazio subjektuan lortzea espero den ondorio positiboa giza garapen iraunkorraren ikuspegitik. Gainera, deskribatu adierazleak, egiaztapen-iturriak eta hipotesi edo kanpoko faktoreak helburu zehatzerako).

4.2.1.- Helburu zehatza.

4.2.2.- Helburu zehatza lortzeari dagozkion adierazleak (adierazle zehatzak, prozesuenak eta eraginarenak deskribatuko dira kantitatearen eta kalitatearen datuetan, denbora eta populazio subjektua, helburu zehatza lortzen egiaz lagundu den alderatu ahal izateko. Proiektuaren genero-eragina neurtzen duten adierazleak, bai emakumezkoen egoera espezifikoki dagokionean, bai bi sexuen arteko desberdintasun-harremanei dagokienean).

4.2.3.- Adierazleen egiaztapen-iturriak (adierazleak betetzen direla egiaztatzeko zer egiaztapen-iturri (galdeketak, zuzeneko behaketa, argitalpenak...) erabiltzen diren adierazko da).

4.2.4.- Kanpoko faktoreak edo hipotesiak (halaber, kontuan hartu behar diren hipotesiak edo kanpoko faktoreak deskribatuko dira, proiektuaren zuzeneko kontrolatik kanpo geldituta, gertatzeko probabilitate handia badute eta proiektuaren arrakastan modu erabakigarrian eragin badezakete. Proiektuaren aldekoak izateko formulatu behar dira).

4.3.- Aurreikusitako emaitzak (modu zehatzean deskribatuko dira egindako jardueren ondorioz, proiektua gauzatzen den bitartean lortuko diren produktuak eta zerbitzuak, hain zuzen ere, helburu zehatza lortuko dutenak).

4.3.1.- Aurreikusitako emaitzak

4.3.2.- Emaitzak lortzeari dagozkion adierazleak (adierazle zehatzak, prozesuenak eta eraginarenak deskribatuko dira



Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO

www.leioa.eu

kantitatearen eta kalitatearen datuetan, denbora eta populazio subjektua, aurrez ikusitako emaitzak lortzen egiaz lagundu den alderatu ahal izateko. Proiektuaren genero-eragina neurtzen duten adierazleak, bai emakumezkoen egoera espezifikoki dagokionean, bai bi sexuen arteko desberdintasun-harremanei dagokienean.

4.3.3.- Adierazleen egiaztapen-iturriak (adierazleak betetzen direla egiaztatzeke zer egiaztapen-iturri (galdeketak, zuzeneko behaketa, argitalpenak...) erabiltzen diren adieraziko da).

4.3.4.- Kanpoko faktoreak eta hipotesiak (proiektuarekiko beharrezkoak diren kanpoko baldintzak deskribatuko dira, emaitzak lortu ostean, helburu zehatzera iristeko).

4.4.- Aurrez ikusitako jardueren zerrenda (emaitzak lortzeko aurrez ikusitako ekintzak deskribatzea, ekintza bakoitzean beharrezkoak diren giza baliabideak, bitarteko teknikoak eta materialak barne. VI. atalean batera finantzatzen dutenen artean kostuak banatu beharko dira).

7.- PROIEKTUAREN AURREKONTUA ETA FINANTZAZIOA. BANAKETA BATERA FINANTZATZEN DUTENEN ARTEAN (VI. atalean aurrekontu-sail bakoitzeko aurrez ikusitako kostu-banaketa zehaztuko da eta batera finantzatzen dutenak aipatuko dira).

SAILAK	Leioako Udala	Euskal erakunde eskatzailea	Erakundea edo tokiko erakundea	Bestelako ekarpenak	GUZTIRA
ZUZENEKO KOSTUAK					
A.I. Lursailak edo eraikinak erosi/errentatzea					
A.II. Eraikinak eraiki eta berritzea					
A.III. Ekipo eta materialak erosi eta garraiatzea					
A.IV. Tokiko langileen kostuak					
A.V. Erbesteratutako langileen kostuak					
A.VI. Gaitasun- eta prestakuntza-kostuak					
A.VII. Proiektuari lotutako sentsibilizazio-kostuak					
A.VIII. Funtzionamendu-kostuak					
A.IX Ebaluazio-kostuak					
ZUZENEKO KOSTUAK, GUZTIRA					
ZEHARKAKO KOSTUAK			Ez dagokio	Ez dagokio	
Erakunde eskatzailearen administrazio-gastuak			Ez dagokio	Ez dagokio	
ZEHARKAKO KOSTUAK, GUZTIRA					
GUZTIZKO OROKORRA, EUROTAN					
Ehunekoa guztizko kostuen gainean					

8.- BIDERAGARRITASUN- ETA IRAUNKORTASUN-IKERKETA (etorkizunean, kanpoko laguntza amaitzean, proiektuaren jarraipena bermatzen duten faktoreak; kasu honetan, VII. atalean egindako ikerketa teknikoak, egingarritasunaren ikerketak, eraikuntzen planoak, tokiko erakundeekin hitzarmenak, hala badagokio, bideragarritasuna bermatzeko egindako merkatu-ikerketak edo ikerketa ekonomikoak – diru-sarrerak sortzea, irabazi/kostuak- erantsiko dira. Horiek guztiek etorkizunean proiektuaren mantentze-kostuak estali beharko dituzte).

8.1.- Ekindako ekintzen bideragarritasun teknikoa (aurreikusitako emaitzak eta helburu zehatza lor daitezkeela bermatzen duen estrategia. Giza baliabideak eta bitarteko materialak. Bideragarritasuna sendotzen duten ikerketak eta analisia).

8.2.- Bideragarritasun ekonomikoa (bakarrik produkzio-proiektuen kasuan: emaitzak lortzearen bermea, produkzio-ikerketak eta merkatu-ikerketak).

8.3.- Erakunde-bideragarritasuna (tokiko agintarien jarrera, tokiko laguntzen politikak eta erakundeen gaitasuna).

8.4.- Proiektuaren iraunkortasuna hori amaitu ondoren, bitartekoen kudeaketa eta lortutako konpromisoak.

9.- ZEHARKAKO LERROAK

9.1.- Generoaren ikuspuntua. Generoaren analisisia eta adierazleak. Agintea emateko estrategiak, aldaketak gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egoeran eta posizioan.

9.2.- Tokiko gaitasunak sendotzeko estrategia. Gaitzeko estrategia. Arreta berezia jarriko zaio gaitzeko orduan gizonezkoek eta emakumezkoek baldintza beretan iristeko neurri zehatzak azaltzeari.

9.3.- Partaidetza-estrategia eta -prozesuak proiekturako eta amaitutakoan sortutako egiturak. Gizonezkoen eta emakumezkoen partaidetza berdina erraztu eta ziurtatzeko neurri bereziak ezartzen al diren aipatuko da.

9.4.- Erakundea sendotzea.

9.5.- Eskubideen ikuspegia. Arreta berezia jarriko zaie emakumezkoaren eskubide osoak aplikatzen direla bermatzera bideratutako neurriari.

9.6.- Iraunkortasun ekologikoa.

10.- PROIEKTUAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA (erakunde eskatzaileak, tokiko erakundeak, populazio subjektiboak eta kanpoko eragileek zehaztutako jarraipen- eta ebaluazio-plana. Emakumezkoek eta gizonezkoek jarraipen berdina egiten dutela bermatzeko neurriak eta generoaren ikuspegitik emaitzak ebaluatzeko neurriak).



11.- AURKEZTU BEHAR DIREN ATALEN ETA DOKUMENTAZIOAREN ZERRENDA

I. atala.- Erakunde eskatzailearen dokumentazio/informazioa (informazio hori behin bakarrik erantsiko da, deialdian aurkeztutako proiektu-kopurua alde batera utzita):

a) Estatutuen eta dagokion erregistroan inskribatua egotearen fotokopia egiaztatua, baita eskabidea sinatzen duen pertsonaren ahalordea ere (lehenengoz aurkezten bada edo aurreko urteetan aurkeztutako dokumentazioarekiko aldaketak badaude).

b) Dekretu honetan aurrez ikusitako laguntzak lortzeko parte hartzen duten erakunde guztiek honakoak aurkeztu beharko dituzte: IFZren txartelaren fotokopia eta zerga-obligazioekin eguneratua daudela adierazten duen ziurtagiria.

c) Erakundearen organigrama. EAEn, estatuan, Europaren eremuan eta herrialde hartzailean ordainsaria jaso eta jasotzen ez duten langileak. Langile boluntario edo kolaboratzaileak. Bazkideen kopurua, boluntarioak, langile laguntzaileak edo erakundearen kideak. Egoitza eta ordezkaritza EAEn edota beste tokietan. Garapenerako kooperazioarekin zerikusia duten bestelako erakundeei atxikipena edota harpidetza.

d) Aurreko urteko kontuen balantzea, estatutuen arabera pertsona baimenduak sinatua.

e) Aurkezten den sektorean esperientzia. Azken bost urteetan kudeatutako proiektuak. Proiektuaren izenburua, tokiko erakundearen izena eta proiektu aipagarrienen zenbatekoa eurotan.

f) EAEn azken bi urteetan sentsibilizazio-jarduera aipagarrienak.

g) Partzuergoaren kasuan, dagokion hitzarmena.

h) Diru-laguntzak itzultzeko prozeduran edo zigor-prozeduran sartua ez dagoela aipatzen duen zinpeko aitordua.

i) Erbesteratutako langileen kasuan:

.- Lanerako aurrekontratua edo kontratua, prestazioa egiteko akordio osagarriarekin; herrialde hartzailean ekintzaren baldintza bereziak zehaztuko dira.

.- Nazioarteko Kooperazioaren Espainiako Agentziak kontratatutako aseguru kolektibo orokorrari atxikitzearen bidez edo poliza sinatzearen bitartez borondatezko langilea aseguratzeko konpromisoaren aitortpena. Nolanahi ere, 519/2006 Errege Dekretuak, apirilaren 28koak, borondatezko langileen Estatutua xedatzen duenak, 10.1.e) artikuluan aurrez ikusitako kontingentziak estali beharko dira.

II. atala- Tokiko erakundearen dokumentazio/informazioa

a) Estatutuen eta dagokion erregistroan inskribatua egotearen fotokopia (lehenengoz aurkezten bada edo aurreko urteetan aurkeztutako dokumentazioarekiko aldaketak badaude). Aurreko urteko jardueren informazio/txostena eta kontuen balantzea.

b) Erakundearen organigrama. Ordainsari jaso eta jasotzen ez duten langileak, langile boluntario edo kolaboratzaileak, bazkideak, boluntarioak, langile kolaboratzaileak edo erakundeko kideak. Egoitza eta ordezkariak. Garapenerako kooperazioarekin zerikusia duten bestelako erakundeei atxikipena edota harpidetza.

c) Aurkezten den sektorean esperientzia. Azken bost urteetan kudeatutako proiektuak. Proiektuaren izenburua, kasu horretan elkartutako erakundeak eta proiektu aipagarrienen zenbatekoa eurotan.

d) Proiektuaren populazio subjektuarekin esperientzia-urteak eta aurretik egindako jardueren zerrenda. Populazio subjektuarekin lan-aukerak etorkizunari begira.

e) Esperientzia-urteak GGKerekin eta aurretik egindako proiektuak.

f) Partzuergoaren kasuan, dagokion hitzarmena.

III. atala.- Proiektuaren kokapenaren mapa zehatza (herrialdea, eskualdea).

IV. atala.- Proiektuaren aurrekariei buruzko informazioa eta horren testuingurua (erabili aurkibidea). Eskualdearen informazio sozioekonomikoa, antzeko proiektuak, tokiko edo nazioarteko erakundeak eta antolaketak eskualdean, nola egin den identifikazioa, aldeztutako bestelako ikerketak, etab.

V. atala.- Proiektuaren Plangintza Matrizea. Zehaztu adierazleak, egiaztapen-iturriak eta hipotesiak aurreikusitako helburu eta emaitzetarako. Zehaztu aurrez ikusitako jardueren kasuan bitartekoak eta kostuak. Espazioak gutxi gorabeherakoak dira.

	Deskribapen -laburpena	Objektiboki egiazta daitezkeen adierazleak	Egiaztapen- iturriak	Hipotesiak edo kanpoko faktoreak



Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

Helburu orokorra		Ez dagokio*	Ez dagokio*	Ez dagokio*
Helburu zehatza				
Emaitzak				
Jarduerak		Bitartekoak	Kostuak	

VII. atala.- Erantsi kasu bakoitzean beharrezkoa den dokumentazioa proiektuaren bideragarritasuna justifikatzeko (erabili aurkibidea): eraikuntzen planoak; tokiko erakundeen hitzarmen/berme/gutunak; produkzio-proiektuetarako, erantsi bideragarritasun ekonomiko-finantzarioen ikerketak, tokiko merkatuaren ikerketak, etab.; proiektuaren etorkizuneko bideragarritasunaren euskarri izateko beste edozein dokumentazio aipagarri.

IDENTIFIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO DATUAK

Enpresaren izena / Sozietatearen izena:

IFZ / NAN:

Ordez kariaren izena, abizenak eta NAN:

Helbidea:

Posta Kodea / Herria

Email kontua / Web orria:

Telefonoak:

Faxa:

Banku datuak:

- IBAN (4 digitu)

-Kontuaren titularra:

-Zenkakia (20 digitu):

Data, izenpea eta sinatzailearen izena eta NAN.

Banku ziurtagiri bat behar dugu, ematen diguzuen kontu korrontea zuena dela egiaztatzeko. "Banku datuak" izeneko atalean bankuaren zigilua jartzearekin ere, nahikoa da.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko jakinarazi nahi dizugu agiri honetan azaldutako datuei tratamendu automatizatua emango zaiela, eta Udalaren ardurapeko fitxategietan sartuko direla. Datu horiek udal kudeaketarako baino ez dira erabiliko, eta beste herri administrazio batzuei laga edo hirugarrenei jakinarazi ahal izango zaizkie, betiere aipatutako legean aurreikusitako kasuetan. Interesdunek datuak ikusi, ezeztatu, zuzendu eta horiei aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, udal bulegoetan eskatuz.

DATOS IDENTIFICATIVOS Y DE COMUNICACIÓN

Nombre de la empresa / Razón Social:

NIF / DNI:

Nombre, Apellidos y DNI del representante:

Dirección:

Código Postal / Municipio

Cuenta de correo electrónico / Página web:

Teléfonos:

Fax:

Datos bancarios:

- IBAN (4 digitos)

- Titular de la cuenta:

- Número (20 dígitos):

Fecha, Firma, Nombre y DNI del firmante.

Necesitamos un certificado bancario para acreditar que la cuenta bancaria que nos facilitan les corresponde. O bien, el sello del banco en el apartado “ Datos Bancarios”.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, relativa a la Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos contenidos en el presente documento serán objeto de tratamiento automatizado, siendo incorporados a los ficheros de los que es responsable este Ayuntamiento. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo ser cedidos o comunicados a terceros, en los supuestos previstos en la mencionada Ley. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición, solicitándolo en las oficinas municipales.